

LUIS AROSTEGI
KARMEL ALDIZKARIKO IDAZLEA
ORDENA OSOKO NAGUSI AUKERATUA


Maiatzaren 2an, eguerdi aurrean, bigarren hautaketan, Luis Arostegi aukeratu eban Karmeldar Teresiarren Kapitulu Jeneralak Ordenako Nagusi edo Aita Jeneral.

Luis Arostegi Karmeldar euskalduna da eta *Karmel* adizkari honetako idazlea. Hori kontuan hartuz, Euskadiko Lehendakariak, Joan Jose Ibarretxe jaunak, gutun polit bat idatzi deutso Luis Arostegi Jeneralari, bere poza eta onginahia agertuz.

Jeneral barria euskalduna eta *Karmel* aldizkariko idazlea izanak eragin deusku aldizkari honetan irakurlel Aita Arostegi aurkeztera; batez be idazle dan aldetik aurkeztuko dogu haren idazlanen bibliografia eskeiniz; bestalde, Ordenako Jeneralaren gain dagoan kargua agertuko dogu, hau da, Karmeldar Teresiarren egoera munduan.

1. Historian zehar euskaldunen probintziatik sortutako Ordenako Jeneralak

Baina historian zehar ez da Aita Luis Arostegi Karmeldarren Nagusi izan dan lehenengo euskalduna. Hemen aitatu baino ez ditugu egingo gorengo kargu hori izan daben euskaldunak.



Zerrenda eskeini aurretik, santa Teresaren nondik norakoa emongo dogu gain-gainetik bada be.

Santa Teresa handiak 1562an barriztatu eban Karmeldarren Ordena, emakumeei jagokenez eta sei urte beranduago, 1568an, gizonezkoei jagokenez; san Joan Gurutzekoa izan

eban lagun gizonezkoen barrizatzea burutzeko. Teresaren Ordena aurreko Karmeldar zaharregandik banatu eta bere burujabe bihurtu zan..., baina laster kongregazio bitan zatitu zan Ordena (1597-1600). Bakotxa bere burujabe zan eta ez euken bata-bestearen arazoetan sartzerik.

a. Espainiako Kongregazioa: Espainia eta beronen mende egozan komentiak hartzen zituan: Jenerala Madrilen egoan.

b. Italiako Kongregazioa (mundu osoa hartzen eban, Espainiakoak eta beronen mende egozanak izan ezik): Jenerala Erroman egoan.

c. Jeneral bakarra: 1875an Markinako Karmeldarrak lortu eben Aita Santuagandik Kongregazio bien batasuna, eta urte horretatik gaur arte santa Teresaren Ordenan Jeneral bakarra dago, eta Erroman dauko egoitza.

Euskal Herriko Karmeldarren Probintziatik sortutako Jeneralak:

Hemen aitatu baino ez ditugu egingo euskaldun Jeneralak. Gainerako goi-karguetakoak, hau da, Jeneralaren aholkulariak ez ditugu zerrendan sartuko. Aita Jeneralaren kargua sei urtekoa izaten da.

a. Espainiako Kongregazioan izandako Jeneralak:

- Esteban de San José (Esteban Arteta Arteta, 1601-1682), Iruñekoa, Jenerala: 1664-1670.
- Pablo de la Concepción (Pablo Jiménez Navarro de Jaso, 1666-1734), Azkoiengoa (Peralta), Jenerala: 1724-1730.

b. Italiako Kongregazioan:

- Juan de Jesús Maria (Ustarroz, 1564-1615) Kalahorrakoa, Jenerala: 1611-1614.


- Domingo de Jesús María (Ruzola, 1559-1630), Calatayud-en jaiotako euskaduna, Markina-Etxebarrikoa jatorriz; Jenerala: 1617-1620.

Hilarión de Todos los Santos (1725-1785), Baionakoa, Jenerala: 1779-1787.

Domingo de S. José (Arbizu Munarriz, 1799-1870), Garesen jaioa, Jenerala: 1865-1870.

c. Ordena osoko Jeneralak, 1875etik aurrera:

- Ezequiel del Sagrado Corazón de Jesús (Ezequiel Bilbao Imaz, 1862-1938), Zornotzakoa: 1907-1913
- Miguel Angel de San José (Miguel Batiz Bilbao, 1916-), Markinakoa: 1967-1973.
- Luis Arostegi, Gatikakoa (2003-).



Luis Arostegi Jeneral barria eta Kamilo Maccise Jeneral obia.

2. LXXXIX. Kapitulu Jenerala Avilan (2003).

Karmeldar Teresiarren Kongregazio biak 1875an batu ziran ezkerre, sekula ez zan Kapitulu Jeneralik egin Espainian orain arte; aurten Avilan izan da apirilaren 27tik maiatzaren 18a bitartean.

Kapituluaren muina hau da: zuzendaritza barria aukeratu, Ordenako arazoak aztertu mundu osoko Karmeldarren ordezkarien txostenak erabiliz; Ordenari arnasa barria emon eta hurrengo urteetarako helburu nagusienak finkatu.

Kapituluan 98 partaide botodun ziran, eta gainerakoak idazkariak, diruzaina, itzultzaileak etab.; une batzuetan moja karmeldarrak, karmeldar sekularrak be izan ziran kapituluan.

Gaiak aztertzeko Kapituluak, hizkuntzen eta lurralde geografikoen arabera, zortzi taldetan banatu zan, era honetara: Inglesak, Asia eta Austriakoak, Europa erdialdekoak, frantsesak, Iberiako penintsulakoak, Indiakoak, Italiakoak, latin-amerikakoak.

Programan bost atal nagusi agertzen ziran: 1. Prestaera espirituala (28-30). 2. Txostenak (1). 3. Hauteskundeak (2-3). 4. Azterketa (5-7). 5. Gai praktikoak (8-17); atal hau izan zan luzeena: *Hitz egiteko errea izan eben moja Karmeldarrak, Karmeldar sekularrak, Anaia laikoak; hainbat gai aztertu ziran, esaterako, formazioaren eta bokazioen gaia, apostolutzarena, egoera ekonomikoarena eta beste asko.*

Kapituluaren hasieran, Camino Maccise Jeneralari eta Kapitulu osoari Aita Santuak egindako gutuna irakurri zan; gutunak 2003ko apirilaren 21eko data dau. Bestalde, maiatzaren 15ean, Avilako Gotzainak parte artu eban Kapitulukoko Eukaristian eta bazkarian.

Kapituluan bizi izandako ekintza bi gogoratu nahi neukez, nahiz eta Kapituluari ertzetik baino ikutzen ez deutesenak izan, batez be lehenengoa:

Hilaren 13an, hamabi eta erdietan, berariaz Avilako Kapitulu Jeneralari eskeinitako liburu barri baten aurkezpena izan zan: Edith Stein-en idazlan guztien laugarren liburukia gaztelaniaz: “Escritos antropológicos y pedagógicos” (2003, 1172 or.).

Hurrengo egunean, etorkizunerako garrantzitsua dan Avilako “Centro Internacional de Estudios Teresiano Sanjuanista (CITeS)” egitasmoaren barri emon eban Francisco Javier Sanchok; proiektu handi baten sartuta dago, Avilako herriaren laguntzaz, zentro edo eraikin handi bat egin nahian; zentro unibertsitario horrek mistika izango dau gai nagusi.

Amaieran dokumentu bat azaldu zan: mezu kapitularra: “Itxaropenean finko” (1 Tes 1,4).

3. Jeneralaren hautaketa eta beraren omenez eskeinitako kontzertua.


Maiatzaren 2a zan Aita Jeneralaren hautaketa egiteko eguna, eta ordua 10.30. Jeneralaren hautaketarako Konstituzioak



dinoana irakurri ondoren, bozketa hasi zan. Bigarren hautaketan urten eban Jeneralak. Luis Arostegi Gamboa. Batzarreko lehendakariak ea kargua hartzen eban itauntzerakoan, holan erantzun eban ohiko berbak erabiliz: “zuen laguntzagaz, bai”. Gero Te Deum kantatuz prozesioan joan ziran aretotik kapera-
ra; eta hemen Jeneral barriak beragan jarritako uste ona esker-
tu eban, elkartasunean eta Probintzia guztiekin elkarlanean jo-
katu nahi ebala azpimarratuz...

Arratsaldean zortzi Aholkulari aukeratzeko alkarrizketak izan ziran; eta biharamonean, 14an, aukeratu ziran. Zortzi hautatuak nazio honeetakoak ziran: Kroaziakoa, Italiakoa, Kanadakoa, Indiakoa, Amerikako Estatu Batuetakoa, Filipinakoa, Afrikakoa eta Mexikokoa.

Jeneralaren hautaketaren oihartzuna komunkabideetan, batez be Euskal Herrikoetan, handi samarra izan zan.





Iluntzean, afal ostean, Aita Luis Arostegi, Jeneral barriaren, eta Aita Camilo maccise, aurreko Jeneralaren omenez **kontzertua** eskeiñi zan: santa Teresaren, san Joan Gurutzekoaren eta Ana de S. Bartolome dohatsuaren olerkien errezitala; hau da, haren olerkiak XVIgarren mendeko musikaren laguntzaz abestuak.

Kantaria: Sonia L. Rivas-Caballero, Bilbon jaioa, eta Madrilen bizi dana; musika irakaslea eta kontzertuak emoten dituana; orain diskoa argitaratzeko lanetan dihardu. Vihuela instrumentuaz laguntzen deutso Octavio Lafourcade Señoret-ek, Txileko Santiagon jaio eta Madrilen bizi danak; musikako irakaslea da; kontzertu ugari emon ohi ditu instrumentu horrekin, diskoak be atara ditu... Belén Yuste da bien aurkezlea, eta programaren azalpenak emoten dituana.

Poema honeek emon zituen: santa Teresarenak hiru (“Vuestra soy, para vos naci”; “Nata de turbe”; “Vivo sin vivir

en mí”), san Joan Gurutzekoarenak beste hiru (“Otras coplas a lo divino”; “Coplas hechas sobre un éxtasis de harta contemplación”, “Cántico Espiritual”, eta Ana de S. Bartolome doha-tsuarenak beste hiru (“Despertad de vuestro sueño”, “Dos palomas vuelan hoy”, “Si ves mi pastor”); eta amaieran gehigarri modura, Teresaren beste bi.

Kontzertua oso gustukoa izan zan, fina; kantariak sentimendu biziz abestuak, olerkiak bere barrutik urtenda legez...; ahots ona eta adierazgarria...

Maiatzaren 26an kontzertu bera emon eben Madrileko Katedralean, Almudenan: kontzertu hau Aita Santuak maiatzaren 4an Madrilen Santu izendaturikoen omenez izan zan. Almudena beterik, mila pertsonatik gora, arrakasta andikoa izan zan.


4. Luis Arostegiren bizitzako zertzelada batzuk

Karmel aldizkariaren harpidedun eta idazleentzat nahiko ezaguna Luis Arostegi, aldizkariko idazle-kontseilukoa eta ohiko idazlea da-eta. Baina oraingoan beraren bizitzako zertzeladak emon behar ditugu, labur-labur bada be.

Luis Arostegi Ganboa Gatican (Bizkaian) jaio zan 1939ko urtarrilaren 21an, ia mila biztanleko herria; nekazaritza, abeltzaintza eta industria txikia dituan erria da.

1950etik 1955era batxilerreko ikasketak egin zituan Zornotzako eta Alesbesko (Nafarroan) karmeldarren ikastetxe-etan. Larreako nobiziatuan sartu 1955ean, hurrengo urteko uztailaren 21ean profesia eginik.

Markinako Karmenen urtebete egin ondoren (1956-1957), Gasteizeran aldatu zan filosofiako ikasketak egitera (1957-1960); eta teologiakoak Erromako Karmeldarren teologiako fakultatean, Teresianum-en, egin zituan (1960-1965), lizenziatura



1991n

tituloaz jabetuz. Erroman artu eban abadetzako sakramentua 1964ko apirilaren 5ean.

1965ean Panamako komentura bialdua izan zan: irailaren 27an heldu zan Kolonbiara, eta hilabete eta erdi egin eban, egun gehienak Bogotan; hemendik abenduaren 11an Dallas-era (USA) joan zan, eta hango mexikar emigranteen parrokiak lagundu eban 1966ko apirilaren erdirarte; inglesa ikasten ahalagindu zan. Apirilean Panamara heldu zan; hemen unibertsitate katolikoan hiru sei-hilabetekotan irakatsi zituan Erljioen historia eta teologia. 1967ko apirilean Dallas-era bihurtu zan.

1967ko udazkenean Milango Jesusen Bihotzaren Unibertsitatean filosofiako fakultatean ikasketa bereziak egiten



1991n Malawin

jarraitu eban. Filosofiako tesia egiten ziharduala, Vienatik hur dagoan herritxo baten (Wolkersdor) bizi izan zan, 1969ko abendua zan; zaharren etxeko kapilau zeregina eukan; denpora hori oso ondo etorri jakon aleman ikasteko. 1970eko urrian bihurtu zan Milanera, tesia amaitzeko; eta 1971ko azaroaren 17an defendatu eban bere tesia: “Bietrich Bonhoeffer: l’etica cristiana como critica di ogni etica”, filosofiako doktoregoa lortuz. Hizkuntzak ikasten jarraitu eban: 1972an urtarrilatik urrira arte Monacoko (Monte Carlo) karmeldarren komentutxoan bizi izan zan.

Gero, 1973an, Iruñera bialdu eben Nagusiak, hemengo karmeldarren heziketa-taldeko partaide eta Erlijioen filosofiako irakasle izateko.

1975ean Zornotzako Karmeldarren ikastetxeko nagusi izendatu eben eta sei urte egin zituan kargu horretan. 1981an



Luis Arostegi, Jeneral barria eta Antonio Viguri, Euskal Herriko probintziala Avilako Kapituluhan.

Probitziako aholkulari aukeratua izan zan, eta kargu honetan be sei urte emon zituan.

Euskal Herriko Probintzian hiru bider Probintzial aukeratua izan zan: 1987-1990, 1990-1993, 1996-1999. Kargu horretan, Probintzia hain zabala izanik, erantzukizun handia izan dau eta hainbat bidaia egin beharra be bai; Afrika eta Latin-amerika bisitatu ditu.

Azkenean, Jeneral aukeratua izan danean, Larrean (Zornotzan) egoan hango Espiritualitate-etxeke zuzendari (1999-2003); horrez gainera, urte honeetan, Euskaldun Probintziako moja Karmeldarren aholkularia izan da, Erromatik izendatuta.

Gero ikusiko dogunez, espirituari eta adimenari jagoken arloa asko landu dau Aita Arostegik, aldizkarietan bere lanak argitaratuz.

5. Ordena osoaren ardurea: Karmeldarrak munduan

Luis Arostegi Jeneral barriaren ardurez konturatzeko, Ordenaren luze-zabala zenbaterainokoa dan azaltzea komeni da.

Karmeldar Teresiarren Ordena, gizonezkoena, 76 naziotan zabaldua dago. 35 Probintzia erlijioso dira guztiz munduan, baina horrez gainera, erdi-probintziak, eskualdetako bikaritzak etab. dagoz, hau da, probintzia bihurtzeko bidean diran komentuen elkarteak.


2002an 4051 erlijioso ziran: 2565 abade, 1414 gazte nobizidua edota ikasketak burutzen diharduenak; 335 anaia laiko...

497 komentu dagoz, honeen artean espiritualitateko pastoral-lana egiten dabena (hau da, gogo-jardunetako etxeak, otoitz-etxeak, espiritualitateko etxeak etab.) 163 dira.

Ordena haziz eta indartuz doa, batez be Indian, Amerikan, Afrikan, Asian... Indian ia 1000 fraide karmeldar dagoz, mundu osoko karmeldarretik lautik bat indioa da. Eta ezin da ahaztu Euskal Herriko Probintziako Karmeldarrak izan dirala Ordenari Indian, Amerikan (Kolonbiako Probintzia), Portugalen (Portugaleko Probintzia)... indar berezia emon deutesenak.

Klausurako moja Karmeldarrak 12.600 dira 888 komentutan eta 100 bat naziotan banaturik; honetatik 1.600 moja (133 komentutan), Aita Jeneralagazko lotura edo hartu-emona apurtu ebenak dira.

Karmengo Ordena sekularra munduan zehar, 64 nazioetan dago, eta guztiz 40.000 bat mila gizon-emakume dira 1092 senitartetan.



Horrez gainera, Ordenaren espirituaz sortu eta bizi diran institutu afiliatuak dagoz, guztira 76 institutu.

Jeneral hautatua izan ondoren, kazetarien itaunetariko bat hau izan zan: munduko karmeldar guztien buru izendatua izateak zer erantzukizun esan nahi eban. Luis Arostegiren erantzuna hau izan zan, gitxi gorabehera: erantzukizun handia Ordenaren batasuna

sendotzeko; kontinente guztietan dago Ordena, arraza eta kultura ezbardinetako jendeen artean, eta aniztasun handi horren barruan batasuna zaindu beharra dago. Eta bestalde, Elizaren eta munduaren aurrean, Ordenak bere espiritualitate-tik erantzuna emon behar dau batez be gaurko beharrizan espiritualetan, pertsonen jainko-egarria ase, eta munduan Jainkoaren aurpegia ikusten lagundu.

Beste itaun hau be egin eutsien: zer da Karmeldar izatea. Eta hau izan zan erantzuna: Jainkoaren espirientzia sakona bizi

izatea, fedearen eta itxaropenaren esperientzia sakona izatea, nahiz eta oztopoak izan, nahiz eta gau ilunetan bizi, eta beste aldetik gaurko gizon eta emakume izatea, xalotasun eta naturaltasunez jantzia...

6. Luis Arostegiren idazlanen bibliografia.

Amaitzeko, Luis Arostegiren bibliografia eskeiniko dogu. Liburu batzuk ditu, eta batez be artikulu ugari. Azpimarratzekoak dira *Karmel* aldizkariako idazlanak (56 artikulu, 3 olerki; eta beste 20 olerkiren itzulpenak); erderaz, berriz, *Revista de Espiritualidad*-en argitatutako 13 artikulu.

A. LIBURUAK ETA LIBURUEN SARRERAK

- Liburuaren artean aipatzekoa da beraren filosofiako dokto-re-tesia: "Bietrich Bonhoeffer: l'etica cristiana como critica di ogni etica" (1971, argitaratu barik dago).

- Pare bat urte lehenago, beraren erderazko olerkiak argira-tu ziran: *Poesías inacabadas – Amaitu bako poemak*. Bilbao, 1969, 97 p. (Euskarazko itzulpena: A. Onaindia).

- Beste obra bat zuzendu eta argitaratu eban: JOAN KURUTZEKOA, *Idazlan autatuak*, Vitoria, 1992, 360 or.;

- Olerkari baten liburu bat argitaratu eban, berak sarrerea gehituz: Balendin AURRE-APRAIZ, *Egunen bidean*, Larrea-Zornotza, 1994, 416 or. (Karmel Sorta 7).

Beste hiru libururi sarrera jarri eutsen:

Lauaxeta'ren poesi-gunetarantz, in : Estepan URKIAGA (LAUAXETA), *Olerkiak*, Bilbao 1974, 19-38 or.

- *Sabin Muniategi: bizitza eta olerkiak*, in: Sabin MUNIATEGI, *Olerki guztiak*. Larrea-Zornotza, 1990. Edizioaren prestatzaile: Julen URKIZA. (Karmel-Sorta, 3), 43-77 or.

- *Lino Akesolo: gizona eta lana*, in Lino AKESOLO, *Idazlan guztiak*. 1.t., Larrea-Zornotza, 1989. Edizioaren prestatzaile: Julen URKIZA. (Karmel-Sorta, 1*) XXI-XXXVI or.

B. ARTIKULUAK:

Baina Luis Arostegik batez be aldizkarietan parte hartu dau bere idazlanez: euskerazko eta gaztelaniazko aldizkarietan. Baina argi dago bi izan dituala euskerazkoetan bere-bereak: *Karmel* eta *Olerti*; eta erderazkoetan batez be Madrileko *Revista de Espiritualidad*. Eta bai euskeraz eta batez be erderaz gai teologiko eta espiritualak erabili ditu, eta euskerazkoetan gai poetiko eta literarioak izan ditu gogoko (batez be *Olerti*n: 11 olerki ditu eta beste 19 olerkiren itzulpenak...).

Orain eskeiniko dodan bibliografía hizkuntzaren arabera izango da, hau da, sail bitan banaturik: euskerazkoak eta erderazkoak.

Aldizkari bakotxean bibliografía kronologikoa emongo dogu.

Euskaraz:

Karmel:

Luis AROSTEGI, *Elizaren jokabidea Euskalerrin. Leenengo oar batzuk*, *Karmel* 1974-3, 32-35.

- , *Eliza, Eliza izan daitela*, *Karmel* 1974-4, 32-35.
- , *Euskalerriko Eliza*, *Karmel* 1975-2, 29-33.
- , *Euskalerriko Eliza: Batzar baten dondoko pentzaketak*, *Karmel* 1975-3, 30-33.
- , *Euskaldun fededun*, *Karmel* 1976-1, 36-39.
- , *ETA arazoa*, *Karmel* 1976-2, 37-40.

- , *·Euzkadi y el vaticano*”. *Gogoketa bat*, Karmel 1976-3/4, 31-35.
- , *Nondik asi*, Karmel 1977-1, 16-20.
- , *Amnistia ta Alkar-bakea*, Karmel 1977-2, 38-44.
- , *Politika ta fedea*, Karmel 1977-3, 25-29.
- , *Jaun-goikoa eta lagi-zarra*, Karmel 1977-4, 21-24.
- , *Ez erria fedearen ordeztu*, Karmel 1978-1, 26-29.
- , *Arbaso onai*, Karmel 1978-1, 77. (Olerkia).
- , *Kristo bai, Eliza ez?*, Karmel 1978-2, 25-28.
- , *Agur, Paulo VI*, Karmel 1978-3, 25-31
- Albino LUCIANI, *Juan Paulo I'ren lenengo “Angelus” itzalditxua...*, Karmel 1978-3, 41 (Itzult.: Luis Arostegi).
- Luis AROSTEGI, *Juan Paulo I il da*, Karmel 1978-3, 42.
- , *Bizkai'ko mendietan*, Karmel 1978-4, 79. (Olerkia).
- , *Aberri-eguna aldatu?*, Karmel 1979-1, 17-20.
- , *Lamiñak*, Karmel 1979-1, 83-84.
- , *Kaiñabera arrakaldurik ez ausi, amatau-aiñiko me-txarik ez amatau (I)*, Karmel 1979-2, 21-24.
- , *Kaiñabera arrakaldurik ez ausi, amatau-aiñiko me-txarik ez amatau (II)*, Karmel 1979-4, 35-38.
- , *Erri-euskereari buruzko filosofia*, Karmel 1979-4, 43-46.
- , *Eliz-gertaera bateri buruz gogoketa*, Karmel 1980-1, 23-27.
- , *Jaungoikoa Ortuella'n*, Karmel 1980-4, 39-43.
- , *Zer diñosku azken-azkenean Avila'ko Teresa deunak?*, Karmel 1983-1, 25-30.
- , *Karl Rahner (Omenez)*, Karmel 1984-3/4, 13-25.
- , *Erri-bidea*, Karmel 1985-1, 3-4.

– , *El Libro Negro del Euskara (Jose Basterretxea “Oskillaso”, Bilbao 1984)*, Karmel 1985-2, 67-73.

– , *Euskarazko irakaskuntza Bizkaian: arazoak eta zenbait proposamen*, Karmel 1985-3, 95-100.

– , *Gizartea ta izkuntza*, Karmel 1985-4, 81-84.

– , *Vaticano Konzilio II'garrena, 20 urte geroago*, Karmel 1986-1, 62-68.

– , *Jesukristoren Jainkoagan siñestea gaurregun*, Karmel 1986-2, 70-76.

– , *Askapen Teologia (Fede-dotrinarako Kongregazioak emondako irakaspen bi dirala-ta)*, Karmel 1986-3, 67-75.

– , *Kristau fedearen egoerea gaur*, Karmel 1986-4, 83-89.

– , *Inkulturapena (Oar batzuk)*, Karmel 1987-1, 70-76.

– , *“Gizona egiazko aurpegi billa”*, Karmel 1987-2, 76-82.

– , *“Gizonaren bizia aldezten dogu, bakea eraikitzeko”*, Karmel 1978-4, 27-30.

– , *Maria Birjiñaren amatasuna*, Karmel 1988-2, 57-62.

– , *Espirituaren bizikizuna*, Karmel 1989-1, 91-95 (Itzult.: Luis Arostegi).

– , *Lino Akesolo*, Karmel 1989-3, 15-25.

– , *Sinismenaren betebearra gaur egun indartuen diren baloreen artean (Eskema edatua)*, Karmel 1994-2, 31-44.

José María HÉRÉDIA, *A travers les balliers...*, Karmel 1994-3, 102-103 (Itzult.: Luis Arostegi) (Olerkia).

Louis PEGAUD, *Sous les doigts imposés...*, Karmel 1994-3, 104-105 (Itzult.: Luis Arostegi) (Olerkia).

Paul VERLAINE, *Donne ta main...*, Karmel 1994-3, 106-107 (Itzult.: Luis Arostegi) (Olerkia).

Henri de RÉGNIER, *Si le temps à jamais...*, Karmel 1994-3, 108 (Itzult.: Luis Arostegi) (Olerkia).

Gerard NERVAL, *Il a vécu tantôt gai...*, Karmel 1994-3, 109 (Itzult.: Luis Arostegi) (Olerkia).

Stéphanne MALLARMÉ, *Le printemps maladif...*, Karmel 1994-3, 110 (Itzult.: Luis Arostegi) (Olerkia).

Charles BAUDELAIRE, *Sois sage, ô ma douleur...*, Karmel 1994-3, 111 (Itzult.: Luis Arostegi) (Olerkia).

Félix ANVERS, *Mon âme a son secret...*, Karmel 1994-3, 112 (Itzult.: Luis Arostegi) (Olerkia).

Luis AROSTEGI, *Ebanjelizatze barria, bai eta kristau barria be*, Karmel 1995-4, 22-35.

– , *Gerard Manley Hopkins (1844-1889)*, Karmel 1996-1, 33-49.

Gerard Manley HOPKINS, [*Txarrena ez...*], Karmel 1996-1, 37 (Itzult.: Luis Arostegi) (Olerkia).

Gerard Manley HOPKINS, (*Aratustelezko pozbidea*), Karmel 1996-1, 39 (Itzult.: Luis Arostegi) (Olerkia).

Gerard Manley HOPKINS, [*Itzartu ta...*], Karmel 1996-1, 41 (Itzult.: Luis Arostegi) (Olerkia).

Gerard Manley HOPKINS, [*Arrotza emotean...*], Karmel 1996-1, 43 (Itzult.: Luis Arostegi) (Olerkia).

Gerard Manley HOPKINS, [*Eroapena...*], Karmel 1996-1, 45 (Itzult.: Luis Arostegi) (Olerkia).

Gerard Manley HOPKINS, [*Neure biotzaz...*], Karmel 1996-1, 45 (Itzult.: Luis Arostegi) (Olerkia).

Gerard Manley HOPKINS, [*Leizar adarrak*], Karmel 1996-1, 47 (Itzult.: Luis Arostegi) (Olerkia).

Gerard Manley HOPKINS, [*Zuzena zara bai, Jauna...*], Karmel 1996-1, 47 (Itzult.: Luis Arostegi) (Olerkia).

Gerard Manley HOPKINS, *R[obert] Bridg[s]'i*, Karmel 1996-1, 49 (Itzult.: Luis Arostegi) (Olerkia).

Luis AROSTEGI, *Laiko-sensibilitatea. Ebanjelizatzea ta espiritualitatea*, Karmel 1996-2, 42-56.

– , *Gaurko gizonaren jarrera Jainkoaren aurrean*, Karmel 1999-3, 90-97.

– , *Jesusen Jainko-bizikizuna*, Karmel 1999-4, 89-97.

– , *Kristau fedea mende barriaren atarian*, Karmel 2000-1, 95-105.

– , *Itxaropen oiñarritua: espirituaren bizikizuna*, Karmel 2000-2, 101-108.

– , *Jainko bizikizunak gure gizartean*, Karmel 2000-3, 77-86.

– , *Tolerantzia*, Karmel 2000-4, 56-64.

– , *Bakearen arazoa Euskalerrian*, Karmel 2001-1, 91-98.

– , *Bernardo Arostegi Iturain (1902-1996)*, Karmel 1997-1, 111. (Olerkia).

– , *Maria gaurko kristau bizitzan*, Karmel 2001-2, 52-59.

– , *“Fedea gaur egun transmititzea”*, Karmel 2001-4, 72-81.

– , *“Millurteko barria astean”*, Karmel 2002-1, 84-95.

– , *Euskaristia, erreinuaren sakramentua*, Karmel 2002-2, 69-76.

– , *Eukaristia, Kristoren pazkoaren sakramentua (II)*, Karmel 2002-3, 68-74.

– , *Eukaristia, bere burua emoten dauen Jauanren sakramentua*, Karmel 2002-4, 87-93.

Josef MOHR, *Gau isila (Stille Nacht)*, Karmel 2002-4, 126-127 (Itzult.: Luis Arostegi) (Olerkia).

Luis AROSTEGI, *Gotzain eskutitz bat dala eta*, Karmel 2003-1, 96-104.

Olerti:

Luis AROSTEGI, *Pazkoa Austria'n*, Olerti (1980) 26-28. (Olerkia).

– , *Garbiak*, Olerti (1980) 28. (Olerkia).

– , *Agur*, Olerti (1980) 29. (Olerkia).

– , *Joanak*, Olerti (1980) 29-30. (Olerkia).

John Henri NEWMAN, *Odei abea*, Olerti (1981) 33-34. (Itzult.: Luis Arostegi). (Olerkia).

Luis AROSTEGI, *Hermana Filomena'ren lorea*, Olerti (1982) 46. (Olerkia).

Thomas MERTON, *Neure anaiarentzat: Gerra ekintzan galdutzat emona, 1943*, Olerti (1982) 82-83. (Itzult.: Luis Arostegi). (Olerkia).

– , *Otoitz-era bi*, Olerti (1982) 83-84. (Itzult.: Luis Arostegi). (Olerkia).

– , *Espetxe bat bear da andrentzat*, Olerti (1982) 84-86. (Itzult.: Luis Arostegi). (Olerkia).

Luis AROSTEGI, *Gabon eguna*, Olerti (1983) 167. (Olerkia).

Thomas MERTON, *Ludi deunari otoi-deia*, Olerti (1983) 229. (Itzult.: Luis Arostegi). (Olerkia).

– , *Inorentzat ez dan abestia*, Olerti (1983) 230. (Itzult.: Luis Arostegi). (Olerkia).

– , *Euria zan...*, Olerti (1983) 231. (Itzult.: Luis Arostegi). (Olerkia).

– , *Izangoaren gaua*, Olerti (1983) 232. (Itzult.: Luis Arostegi). (Olerkia).

1983-Eugeni A. EVTUCHENKO, *Neure ama*, Olerti (1983) 233-234 (Itzult.: Luis Arostegi) (Olerkia).

Luis AROSTEGI, *Joan Inñazio Goikoetxea "Gaztelu"ren olerkiak*, *Olerti* (1983) 301-311.

– , *Aldiaren nekea*, *Olerti* (1985-86) 225. (Olerkia).

– , *Askatasun unea*, *Olerti* (1985-86) 226. (Olerkia).

– , *Urtarrilla*, *Olerti* (1985-86) 227. (Olerkia).

Thomas MERTON, *Cobre'ko Andra Mariari abestia*, *Olerti* (1985-86) 285. (Itzult.: Luis Arostegi). (Olerkia).

– , *Naigabea*, *Olerti* (1985-86) 286. (Itzult.: Luis Arostegi). (Olerkia).

– , *Arrotza*, *Olerti* (1985-86) 287-288. (Itzult.: Luis Arostegi). (Olerkia).

– , *Abestia: billa ba'zabiltz...*, *Olerti* (1985-86) 289. (Itzult.: Luis Arostegi). (Olerkia).

– , *Geldiro geldiro...*, *Olerti* (1985-86) 290. (Itzult.: Luis Arostegi). (Olerkia).

Luis AROSTEGI, *Sabin Muniategi'ren olerkiak*, *Olerti* (1985-86) 342-363.

ZER:

Luis AROSTEGI, *Agur*, *Zer* (1981,39.zk.) 9. (Olerkia).

– , *Garbiak*, *Zer* (1981,39.zk.) 9. (Olerkia).

– , *Joanak*, *Zer* (1981,39.zk.) 9. (Olerkia).

Erdaraz:

Revista de Espiritualidad

Luis AROSTEGI, *Volver a la oración*, *Revista de Espiritualidad* 30 (1971) 057-064; (= *Vida espiritual*, 32 (1971) 59 ss.)

- , *Vida terrenal del cristiano en clave teologal*, Revista de Espiritualidad 34 (1975) 475-486.
- , *La Gloria de la Cruz en E. Przywara*, Revista de Espiritualidad 35 (1976) 275-300
- , *Dietrich Bonhoeffer: la fe cristiana en el mundo mayor de edad*, Revista de Espiritualidad 38 (1979) 263-294
- , *Los santos ante la modernidad*, Revista de Espiritualidad 39 (1980) 191-213
- , *Palabra de Dios e institución*, Revista de Espiritualidad 41 (1982) 293-315
- , *El Carmelo como símbolo teológico en Erich Przywara*, Revista de Espiritualidad 41 (1982) 613-634
- , *Pensamiento del amor cristiano*, Revista de Espiritualidad 44 (1985) 387-411
- , *Se puede dialogar con Dios?*, Revista de Espiritualidad 48 (1989) 179-195
- , *La palabra filosófica de las religiones*, Revista de Espiritualidad 53 (1994) 233-253
- , *Teresa de Lisieux en la conciencia moderna*, Revista de Espiritualidad 55 (1996) 171-203
- , *La vida religiosa del futuro. Perspectiva teológica*, Revista de Espiritualidad 57 (1998) 637-668
- , *El misterio de Dios en Teresa de Lisieux*, Revista de Espiritualidad 58 (1999) 225-253
- , *Santa Teresa de Jesús, testimonio teológico*, Revista de Espiritualidad 61 (2002) 201-229

Monte Carmelo

Luis AROSTEGI, *Historia y vida. Nuestro riesgo presente*, Monte Carmelo 76 (1968) 191-212.

– , *Humanismo del P. Juan Vicente*, Monte Carmelo 102 (1994) 433-462.

– , *La misión en el diálogo interreligioso*, Monte Carmelo 110 (2002) 519-554.

Vida espiritual (Bogotá) 1970

Luis AROSTEGI, *Interpretación Teológica de la reforma de vida*, *Vida espiritual*, 29 (1970) 111 ss.

Vínculo

Luis AROSTEGI, *Nota acerca de las constituciones para los 92 monasterios (8 diciembre 1990)*, *Vínculo* (1991, nº 137) 10-13.

– , *Informe del P. Provincial. Al Capítulo Provincial 1990 sobre el estado general de la Provincia*, *Vínculo* (1990, nº 132) 2-12. (baita ere: BOPJSN, 1991, nº 99).

BOPJSN (*Boletín Oficial de la Provincia de S. Joaquín de Navarra de Carmelitas Descalzos*)

Luis AROSTEGI, *P. Plácido de la Sagrada Familia (Luis Astobiza Berrojalbiz) (1903-1982)*, BOPJSN (1982, nº 92) 110-114.

– , *[El Provincial a los religiosos de la Provincia]*, BOPJSN (1989, nº 98) 77-84.

– , *[Carta del P. Provincial a los Carmelitas de Chile]*, BOPJSN (1989, nº 98) 127-128

– , *[Carta del P. Provincial a los Hermanos de Guatemala-Perú]*, BOPJSN (1989, nº 98) 152-154.

– , *[Carta del Provincial de Navarra al R. P. Felipe Sáinz de Baranta, Prepósito General y Definidor General]*, BOPJSN (1989, nº 98) 178-179.

- , *[Carta de N. P. Provincial a los misioneros de Tumaco]*, BOPSN (1989, nº 98) 181-183.
- , *[25 años de la llegada de los Carmelitas de la Provincia de Navarra a la misión de Malawi: reseña del P. Luis Arostegui, Provincial]*, BOPSN (1989, nº 98) 193-197.
- , *[Informe del P. Provincial, Luis Arostegui, al Capítulo Provincial 1990 sobre el estado general de la Provincia]*, BOPSN (1991, nº 99) 21-36.
- , *[Cartas del Provincial]*, BOPSN (1993, nº 101) 75-92.
- , *[Informe del P. Provincial, Luis Arostegui]*, BOPSN (1994, nº 102) 12-24.
- , *[Convocatoria del Capítulo Provincial]*, BOPSN (1999, nº 106) 107.
- , *A los Hermanos de los vicariatos de Chile y del Perú tras la visita pastoral*, BOPSN (1999, nº 106) 111-116.
- , *[Informe del Provincial]*, BOPSN (2002, nº 108) 81-96.

La Obra Máxima

- Luis AROSTEGI, *Descubrir el rostro de Jesús*, La Obra Máxima (1974, marzo) 10-11.
- , *¿Pero qué le trae Jesús al hombre?*, La Obra Máxima (1974, julio) 10-11.
- , *“Tanto ha amado Dios al mundo”*, La Obra Máxima (1974, diciembre) 10-11.

Julen Urkiza